

23/09/2009

EuskoTrenek lurrin trenen hiru zirkulazio eskainiko ditu asteburu honetan

EuskoTreneko iturriek jakinarazi dutenez, larunbatean bi zirkulazio eskainiko dira, 12.30ean eta 18.00etan, eta igandean, berriz, zirkulazio bat izango da, eguerdiko 12.30ean irtengo dena, alegia.

Lurrin trenen zerbitzuak balio historiko handia duen material mugikorrez egin ohi dira. Tren-makina hauek nabarmentzen dira: "Aurrera" (100 urte baino gehiagokoa); "Espinal" (1887. urtean eraikia, jardunean dagoen Europako bide metrikoko makinarik zaharrena da); "Portugal" (Estatu espainolean jardunean daudenetan potentzia handiena duen bide estuko lurruneako tren-makina da); eta "Euzkadi" (1921. urtean eraikia, Ipar Euskal Herriko bide metrikoaren eredurik adierazgarrienetako batekoa da).

Bidaia-arien autoen artean, "Pagoa" eta "Aritza" izenekoak -1925ean eraikiak Urolako Trenbiderako- eta museoak hartutako azkenetakoa, Bidasoako Trenbide zaharraren C-5 bidaia-arien autoa -1915. urtean eraikia- nabarmentzen dira.